

# ARRANO ARRANTZALEA eta Txingudiko Padurak

Gidoia: TXEPE

Marrazkiak: ANGEL DOMÍNGUEZ GAZPIO

Amoma, zenbat ura dagoen lakuan!. Igerileku erraldoi bat dirudi.


Ez lker, zure aurrean daukazuna ez da laku bat, padura baizik.

Eta zer da padura bat?

Eguneroko itsasaldien bitartez itsasoa eta erreka batzen den lautada bat da padura. Orain urez gainezka egon arren, hemendik ordu gutxira itsasoa atzerantz joan eta hustu egingo da.

2014. urteko iraila

Idoia amoma aparta da. Txingudiko paduretan jaioa oso ondo ezagutzen du paisaia hori txikitatik. Berarekin bere iloba lker ibiltzen da. Berarekin inguruneari buruzko bizipenak eta ezaquera konpartitzen du.



Orduan...itsasbehera denean, nora joaten dira arrainak?

Arrainek itsasaldiarekin batera ibiltzen dira eta bertako ura aprobeztatzen dute elikatzeko eta kumatzeko. Hala ere, landare gehienentzat oso zaila da hemen bizitzea eta beraz gutxi batzuk dira hain toki aldakorrean bizitzeko gai.

Eta hain leku zaila izanik, zergatik bizi dira hemen?

Izaki bizidun bakoitza bizibaldintza desberdinetara ohituta dagoelako. Landare hauek ezingo lirateke beste toki batean bizi. Itsasaldien erritmora moldaturik daude molusku asko bezala, badakizu...margolak, ostrak eta txirlak...eta karramarro eta izkirak bezalako krustazeoak bezala.

Izkirak izugarri gustatzen zaizkit niri!



Amoma, zer dira elkarrengandik hain gertu eta hain azkar hegan egiten duten hegazti horiek?

Txirriak dira. paduretako limoan bizi diren xomorroetaz elikatzen diren uretako hegaztiak. horregatik deitzen zaie "limikolak". Uretako hegaztiak paduretako errege erreginak dira. urtean zehar 100 espezie desberdin ere ikus daitezke.

Ikara-garria!

Begira lker!. Ikusten duzu hegan dabilen harrapari bakarti hori?

Zer da, Amoma? kaio bat dirudi!

Ez, hegazti harrapari bat da. Mundu osoan ospetsua den Arrano arrantzale ikaragarria eta janari bila dabil.

Begietan mozorro bat daramala dirudi!







Horrela da Iker, udazkenean Europa iparraldeko hotzetik ihes egiten dute eta gure hezeguneak bisitatzen dituzte Afrikako negupasako tokietara bidean. Urdaibain, Txingudin eta Uribarri Ganboako urtegietan ikusten ditugu batez ere.

A ze nolako bidaia!  
Ez naiz harritzen arrantzatzeko gogoia izateaz.

Noski Iker, Oraindik 4.000 kilometro baino gehiago dituzte azken helmugara iritsi aurretik. Saharako basamortutik haratago.



Amoma, eta...noiz bueltatuko dira Txingudira?

Martxotik aurrera bueltatuko dira. Batek daki, agian arrano hauxe bera berriz ikus dezakegu datorren udaberrian hemen edo Urdaibain.

Hemen gelditzen ez badira, nora joaten dira?

Iparralderantz, ziurrenik Eskozia, Alemania edo Eskandinaviara



Eta zergatik doaz hain urrunera?

Bertan kumatzen dutelako, Ikertxu. Oso hegazti berezia da jaiotako lurraldearekiko lotura estua duelako. Urtero baserri berdinean kumatzen duten enarak bezala.

Beraz, ez du Euskadin kumatzen?

Oraindik ez. Baina bada Urdaibain kumatzea lortzea helburu duen proiektu bat martxan. Erreza izango ez den arren.



Hemen kumatzeko, beste toki batetako txitoak ekarri eta hemen jaio direla sinestarazi behar zaie.

Baina...hori nola egiten da?

Kasu honetan, Eskoziako habietatik hartu dituzte biologo batzuek txitoak eta paduren aurrealdean dauden kaiola handi batzuetan jarriko dituzte txitoak hazten joan daitezten. Bertan dauden bitartean Urdaibaiko paduretara ohituko dira eta benetan hemen jaio direla pentsatuko dute azkenean.



Beraz, iruzur pixka bat egiten zaie, ezta?

Bai, Iker: urteetako jazarpen eta hilketen ostean, espeziearen berreskurapenean lagunduko duen iruzur bat da.

Amoma ... eta zergatik jazarpen zitzaien? hain polita izanik.

Iker ... Ezjakintasuna, edozein izaki bizidunaren biziraupenerako mehatxu handiena da.



Lehenengo bere habitata eraldatu zen, gero ibai eta lakuak kutsatu ziren, jazarri eta ehizatu egin zen, habiak lapurtu zizkieten, eta horrela ia Europa osoan desagertu zen. Ondorioz, Eskandinavian bakarrik biziraun zuelarik, eta Euskal Herrian kumatzen zuen?



Ez dakigu noiz kumatu zuen Euskal Herrian azkenengoz, hala ere, nire aitak paduretari ikusten zituen aldiro bazekien urtaro aldaketa zetorrela. Irailean, hegoaldera bidean zijoazen lehen aleak ikusten zituenean esan ohi zuen:

Bukatu da uda!

Penagarria da urtean zehar hilabete gutxi batzuetan soilik behatu ahal izatea.

Beno, zorte pixka batekin hori aldatu daiteke.



Zuk uste ahal duzu berriz ere kumatuko dutela hemen?

Ahalegin guztiak egiten ari dira hala gerta dadin. Aurten paduretari zehar beraien lehenengo hegaldiak egiten ari diren 12 arrano gazte askatu dira. Agian hemendik 2 urtetara horietako baten bat berriz ere ikus dezakegu.

Bi urte?



Arrano arrantzale gazteek, beraien lehen bi urteak Afrikan igarotzen dituzte, kumatzeko beharizana izan arte. Hortik aurrera beraien jaiolekua bilatzen saiatuko dira.

eta honaino iritsiko dira!  
Baten bat hemendik pasatzea espero dugu.



Hemendik aurrera adi egongo naiz eta itsasadarrean dauden zutoin guztiak begiratuko diet.

Oso ondo lker. Oso ideia ona da: orain badakizu nola identifikatu arranoa.

Uretara jauzi egiten ikusten badut ez dut zalantzarik izango, ezta Amoma?

Ez dago horrelako hegaztirik gure artean.



Goazen lker, goiz zoragarria izan dugu eta itsasbehera heldu da jadanik.

Egia da, ura desagertu da.

Lasai, hemendik ordu gutxitara ura berriz etorri eta estuarioa biziberrituko du.

Padurak gustatzen zaizkit amoma.

Niri ere bai lker.

